

Aretxabaleta,  
1993ko uztaileak 29

# Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS  
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.  
ARETXABALETA

## Beti Garaiz

- *Andramaixak*
- *Afizioak:*  
*Floren Elortondo*
- *Kirolak:*  
*Joseba Larrinaga*



Ez ezazue pentsatu herria ohoreki zaintzen duten aguazilei buruz hitzegingo dudarik. Ez baizazue iruditzen ere, asko gara udan zehar bertan

**"Oporrak, urtero garai honetan, irrikaz espero izaten diren zerbait dela iruditzen zait"**

## Herri zaintzaileak

geratzen garenok Atxabaltako kaleetan kolore apur bat ipintzen, nahiz eta gogo asko izan kolore hori hondartza lasai eta eder batean hartzeko. Batzuetan lana dela, beste batzuetan dirua falta dela, ... total, denok bata bestearen aurpegia ikusten.

Oporrak, urtero garai honetan, irrikaz espero izaten diren zerbait dela iruditzen zait. Nork ez du egun berezi hauek heldu baino lehen, egutegiko egunak boligrafo gorri eta potolo horiekin

ezabatu? Gero eta gutxiago falta da!. Azken metroak helmugaraino inoiz baino zailagoak egiten zaizkigu. Baina azkenean, ... bejondeizuela denoi!. Azken arazoak eta putzak atzean uzten dira egun zoragarri hauek disfrutazerakoan (nahiz eta aurten eguzkia ere oporretan joan).

Zeregin?. Ez dago arazorik! Festak gura dituzula? Bai...

San Inazioekin hasi, Gasteizeko Blanketan jarraitu, Atxabaltako jaiak ahaztu gabe, Bilboko aste

nagusiarekin bukatu. Gorputza mugitu! Bai horixe! Ez gara ez geldirik geratuko, lasai.

Lasai ibili nahi duzuela?. Aukera paregabea ezer ez egiteko. Ez pentsa, baina hau ere beharrezkoa da. Azken egunetako "stresa" pasiora bidali behar da nahiz eta iraileko gurutzean berriz ere, berarekin elkar-tu. Bitartean ondo pasau!.

Bakazinuek heldu die!

Nahi duzuen moduan, baina ondo ibili gero iraileko lanari fin asko obatzeko!.

**Gotzone Güemes  
Kultura Kirol la-  
guntzailea**

## Aretxagazeta

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txinburreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Goretti Ayastuy eta Agurtzane Elkorro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragonés, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala.  
**Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

# Oporretan nora zoaz, zergatik eta zenbat denborarako?



**Agurtzane Antxia**  
(Langabetua)

Atxabaltan geratuko naiz. Ez zait asko gustetan kanpora urtetea, beraz gurago dut Atxabaltan geratzea.



**Kontxi Balerdi**  
(Langilea)

Seguraski inora ere ez. Lehenengo hamabostaldian lana egin behar dut eta gero ez dakit joango naizen. Joatekotan Peñiskolara joango nintzateke.



**Naiara Akizu**  
(Ikaslea)

Alikantera noa, apartamentu batera.

Nik Oporretan gurago dut hondartzara joan mendira baino.

Hamabost egunetarako noa.



**Xeli Echeandia**  
(Langilea)


Hemen geratuko naiz. Hemen oso ondo egoten da.

Joatekotan, Euskal Herrian geratuko nintzateke.



**Sergio Pando**  
(Ikaslea)


Inora ere ez. Ez daukat dirurik eta hemen geratuko naiz, herria zaintzen.



**Eder Antia**  
(Ikaslea)


Tarragonara, Kampping batera, hilabetete erdirako.

Niri hondartza asko gustetan zait eta horregatik noa.



**Abel Saez**  
(Langilea)

Zamorara, emaztearen herrira. Han etxe bat daukagu eta bertara goaz.



**Patxi Arriola**  
(Langilea)

Atxabaltan geratuko naiz. Hemen inguruan gustetan zait geratzea. Edozein lekutara joango naiz, baina Euskal Herrian.



## Juan Ramon Arana Memoriala

Uztailaren 21ean Juan Ramon Arana Memoriala osatzen duten batzordekoak elkarte ziren aurten go ekintzetarako dirua jasotzeko egin den zozketaren irabazleari saria emateko. Zozketa horren irabazlea Eskoriatzako Manuel Muñoz izan da. Saria bi pertsonendako azaroan New York-erako bidaia zen, orduan maratoi garaia dela aprobetxatuz eta horretaz gain 100 mila pzta gastutarako. Baina Manuellek dirua gurago zuen eta 300 milako taloia jaso zuen. Bera ezin izan zen bertan egon eta bere semeak jaso zuen bere orde.

Batzordekoek esan zituzten, iaz futbitoia izan

bazen antolatu zuten ekintza aurtengoa eskubaloia izango da. Memorialaren helburua Juan Ramonen izenean urtero kirol bat lan-tzea da, galduaz doan kirolen bat. Aurten eskubaloia berreskuratu gura da eta horrela talderen bat sortu Almenen..

Horretarako, talde famatu desberdinen arteko partidua antolatu dituzte. Batetik, irailean nesken taldeek jokatuko dute, Bidebieta eta Hernaniko taldeek. Bestetik Gabonak aurretik gizonezkoen Bidasoa taldeak Teka edo San Antonio taldearen aurka jokatu du.

Datorren urtean pelotari tokatuko ei zaio.

## 1993ko kintoak

1993 urtean Aretxabaletan 22 ume jaio dira.


Horietatik, 14 mutilak dira eta 8 neskak. Gainera datu kurioso bat dago, martxoan 7 ume jaio ziren eta denak mutilak. Hona hemen orain arte gure herrian jaio diren umeen izenak. Urtarrilean; Beñat Urrutia Gastañaga, Asier Castellano Velasco, Maite Trigo Corres. Otsailean; Eukene Dorronsoro Murgiondo, Maialen Garai Marcaide, Paula Ibañez Larrinaga. Martxoan; Gor-ka Arbulo Ramos, Garikoitz Igartua Mendieta, Mikel Gomez Vales, Lander Arribabalaga Larrauri, Mikel Duran Trejo, Jon ander Azkoitia Larrinaga, Gontzal Ezcurra Martinez. Apirilean; Lorea Mar Barrutia, Asier Unanue Gomez, Leizuri Nuñez Eraña, Leire Pascual Galdaera, Javier Alvarez Taboada. Maiatzean; Ander Mendikute Barbero, Igor Romero Boyero. Ekainean; Iker Martinez de Aguirre Mendia, Miren Ugarte Barruetabeña.

• Urtero moduan, aurten ere, abuztuan, Aretxabaletako igerilekuko karnetarekin, Arrasateko pisinetara joateko aukera izango da, abuztuan Aretxabaletako Kirol-etxea itxita egongo delako.

• Uztailaren 24ean, arratsaldeko 4etatik aurrera, Arlutze-ko toldoan, mus txapelketa egin zen. Bertan 32 bikote elkartu ziren eta kanporaketak jokatu gero irabazleak, Sixto eta Jaras izan ziren eta bigarrenak, Migel Angel (Muru) eta Felis Arrese. Zorionak irabazleei eta bertan elkartu ziren guztiei.



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria

*FELIS ILEAPAINDEGIA*

14TIK IRAILAK 7RARTÉ ITXITA

**ONDO PASAU ANDRAMAIXAK,**  
opa dizue Felisek

Durana Kalean

ARETXABALETA



## Juan Ramon Arana Memoriala

Uztailaren 21ean Juan Ramon Arana Memoriala osatzen duten batzordekoak elkartu ziren aurten go ekintzetarako dirua jasotzeko egin den zozketaren irabazleari saria emateko. Zozketa horren irabazlea Eskoriatzako Manuel Muñoz izan da. Saria bi pertsonendako azaroan New York-erako bidaia zen, orduan maratoi garaia dela aprobetxatuz eta horretaz gain 100 mila pztza gastutarako. Baina Manuelek dirua gurago zuen eta 300 milako taloia jaso zuen. Bera ezin izan zen bertan egon eta bere semeak jaso zuen bere orde.

Batzordekoek esan zituzten, iaz futbitoia izan

bazen antolatu zuten ekintza aurtengoa eskubaloia izango da. Memorialaren helburua Juan Ramonen izenean urtero kirol bat lantzea da, galduaz doan kirolen bat. Aurten eskubaloia berreskuratu gura da eta horrela talderen bat sortu Almenen..

Horretarako, talde famatu desberdinen arteko partidua antolatu dituzte. Batetik, irailean nesken taldeek jokatuko dute, Bidebieta eta Hernaniko taldeek. Bestetik Gabonak aurretik gizezkoen Bidasoa taldeak Teka edo San Antonio taldearen aurka jokatu du.

Datorren urtean pelotari tokatuko ei zaio.

## 1993ko kintoak

1993 urtean Aretxabaletan 22 ume jaio dira.


Horietaik, 14 mutilak dira eta 8 neskak. Gainera datu kurioso bat dago, martxoan 7 ume jaio ziren eta denak mutilak. Hona hemen orain arte gure herrian jaio diren umeen izenak. Urtarrilean; Beñat Urrutia Gastañaga, Asier Castellano Velasco, Maite Trigo Corres. Otsailean; Eukene Dorronsoro Murgiondo, Maialen Garai Marcaide, Paula Ibañez Larrinaga. Martxoan; Goraka Arbulo Ramos, Garikoitz Igartua Mendieta, Mikel Gomez Vales, Lander Arrizabalaga Larrauri, Mikel Duran Trejo, Jon ander Azkoitia Larrinaga, Gonzal Ezcurra Martinez. Apirilean; Lorea Mar Barrutia, Asier Unanue Gomez, Leizuri Nuñez Eraña, Leire Pascual Galdaera, Javier Alvarez Taboada. Maiatzean; Ander Mendikute Barbero, Igor Romero Boyero. Ekainean; Iker Martinez de Aguirre Mendia, Miren Ugarte Barruetabeña.

• Urtero moduan, aurten ere, abuztuan, Aretxabaletako igerilekuko karnetarekin, Arrasateko piszinetara joateko aukera izango da, abuztuan Aretxabaletako Kirol-etxea itxita egongo delako.

• Uztailaren 24ean, arratsaldeko 4etatik aurrera, Arlutzeko toldoepen, mus txapelketa egin zen. Bertan 32 bikote elkartu ziren eta kanporaketak jokatu gero irabazleak, Sixto eta Jaras izan ziren eta bigarrenak, Migel Angel (Muru) eta Felis Arrese. Zorionak irabazleei eta bertan elkartu ziren guztiei.



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria


*FELIS ILEAPAINDEGIA*

14TIK IRAILAK 7RARTÉ ITXITA

**ONDO PASAU ANDRAMAIXAK,**  
opa dizue Felisek

Durana Kalean

ARETXABALETA



## Kanpandorrean gora

Joan zen astelehenean kanpandorrea garbitzeko asmoarekin Asier Ugarte, Aitor Atxaga eta Patas (Murrukixoko partaideak eta eskalada sailean dabiltzanak) kanpandorrean gora ikusi genituen sokatik zintzilik.

Eurek esan zigutenez, lan hau Don Vitorianok agindu zien, kanpando-

rrean zeuden bedarrak eta zikinkeriak kentzea. Eurek pozik hartu zuten notizia eta berehala ekin zioten lanari. Sokak hartu, eta kanpandorrean gora igo zuten lan arriskutsu hura ahalik eta ondoen egitera.

Hurrengorako ere badakigu nori deitu horrelako lan zailak egiteko.

## Zabor bilketa

Oporrak direla eta Atxabaltako Udalak honako hau adierazi gura du zabor bilketari dagokionez:

- Datorren abuztuan, bolumen handiko objektuak ez dira jasoko, zerbitzu hori, ostera, irailaren 24ean (egukoak) hasiko da.
- Datorren uztailaren

29tik (eguna) abuztuaren 30erarte, Ederlari-neroko sarrerako zubian bi kontenegailu ipiniko dira, bertan zaborrak uzteko.

- Abuztuan zehar, zapatu eguerdian ez dira zabor bereziak jasoko.
- Paperontzietan zaborrik ez botatzea eskatzen da.

## San Inazio eguna Murualden

Datorren zapatuan San Inazio eguna dela eta, urtero moduan Murualde Elkartearen egun horretan ospakizunak izango dira.

Goizean, egunari hasiera on bat emateko, salda egongo da denontzat. Gero, 12etan herriko parrokiaren Meza izango da. 12,30etan berriz, bolo txapelketa egongo da. Horretarako izen ematea 700 pztara izango da.

Ordu batetan txikiteoa hasiko da eta hau Zabaleanaiek aliatutakoa izango da. Ondoren txikiteoa bukatuta gero, ordu biak aldera bazkaria. Bazkarian, Zeberio eta Begiristain bertsoariak ere izango dira eta baita trikitilariak ere bazkaria alaitzeko.

Gauean 10etatik aurrera Zabaleanaiek jarraituz erromeria egongo da Elkarte aurrean bertan.




# LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Floren Elortondok 15 urte daroa masai munduan. Berari afizio hau futbola utzita gero etorri zitzaion, 26 urte zituela. Egun batean konturatu zen, gorputza zaintzea oso garrantzitsua zela, ez bakarrik entrenamenduak. Orditik gaur egunera arte jo ta sua dabil lanean, atxabaltarron gorputzekin. Ze kirolari edo ze pertsona ez da inoiz masai bat hartzera nonbaitera joan? Atxabaltan Floren Elortondo daukagu.



## Floren Elortondo: "Profesionaltasun haundia eskatzen duen afizioa da"

• **Noiztik daukazu afizio hori?**

• Orain dela 15 urte hasi nintzen.

• **Nondik dator masajeen afizioa?**

• 26 urte nituenean, futbola praktikatzeari utzi nion eta mutikotxoak entrenatzen hasi nintzen. Urte batzuk pasatu ondoren, umeak ondo entrenatzea bezain garrantzitsua gorputzaren zainketa eta errekupeazio zela ikusi nuen.

• **Afizio hau ezagutzeko denbora luzea behar da?**

• Teknika ezagutu

daiteke, baina gutxi dominatzea oso gaxta da. Dena den, guzti hau ezagutzeko barrutik etorri behar zaizun afizio bat da.

Ikastaroak orientabiderako ondo daude, baina ez dira nahikoak, eta horregatik beharrezkoa da asko praktikatzea eta ikasten jarraitzea. Kontutan euki behar da nire eskuak niregan konfiantza jarri duten pertsonen gorputza manipulatzen dabiltzala.

• **Nor izan da zure maixua?**

• Asko eta oso onak

izan ditut, bai euskaldunak eta bai kanpokoak.

• **Gatxa da?**

• Profesionaltasun handia eskatzen duen afizioa da, nahiz eta ihar-duera honetan ona izatea oso gaxta gertatu.

• **Noiz disfrutatzen duzu gehien?**

• Problemaren bat daukan bati arazoa konpondu ondoren, eskerrak ematen dizkidanetan.

• **Zenbat denbora dedikatzen diozu pertsona bakoitzari?**

• 3 ordu laurdenetik ordu batera sesio bakoit-

zean.

• **Egin duzun gauza aipagarriena edo gustoren geratu zarena?**

• Kasu bakoitza desberdina da, baina gaxtak zein errezak harro sentiarazten naute.

• **Zure etxekoek zer esaten dizute?**

• Tira-bira txiki batzuk izaten ditut masaia-ri dedikatzen diodan denboragatik, baina normalean asko laguntzen didate.

• **Afizio hau galtzeko arriskuan ikusten duzu?**

• Ez dut uste. Jendea masailarien lanaren abantailaz konturatzen hasi da, eta zorionez gero eta gehiago dira guregana hurreraturen direnak.

• **Zein da sekreturik handiena?**

• Dedikazioa eta konstantzia.

• **Kontatu masai baten prozesua?**

• Pazientea elkarriketatu ondoren bere historial kliniko jarraituz, azterketa postural bat egiten zaio, bere flexibilitatea eta mugikortasun maila ezagutzeko. Hau eginda gero min test bategin jarraitzen dugu, azterketa guzti horietatik ateratako emaitzekin osteopatia edo masaia- ren bidea aukeratzeko.

• **Zenbat balio du?**

• Oso merkea da.

*E. Vazquez  
R. Velasco*

Esteban Gorroño dugu azkenengo bi urteetan Basotxoko lehendakaria. Hango berri jakiteko asmoz, berarekin elkarrizketa txiki bat euki dugu. Basotxok urte asko daroa Atxabaltan, lehenengo Mitarten eta gero orain dagoen lekura pasatu zuten. Estebanek arazoak eta ekintzak kontatu dizkigu eta gauza asko gainera arraroak egin zaizkigunak eta interesgarriak gainera.



## "Bazkideei gehiago parte hartzeko eskatuko nieke"

• Zergatik sortu zen jubilatuen etxea?

• Herri guztietan dago jubilatuen etxea edo elkarteak. Hasieran Udalak goiko lokala utzi zigun. Txikia geratu zitzaigun eta orduan zaharren egoitza egin zenean, behean jarri ziguten.

• Ze lokal dauka-zue?

• Taberna ez da gurea. Guk liburutegia, telebista ikusteko sala eta biltzeko beste gela bat besterik ez daukagu. Taberna aparteko gauza da, nahiz eta jende askok berdina dela pentsatu.

• Noiztik zaude juntan?

• Aurtengoa laugarren urtea da eta datorren urtean urten gura nuke. Urte bi daroat lehendakari. Normalean lehendakaria bi urtera aldatzen da. Lau urtetik lau urtera estatutu barriak egiten ditugu. Bakoitzaren eginbeharrak azaltzen dira estatutuetan.

Orain estatutu barriak etorri dira eta ez dakit behar den moduan funtzionatuko duten. Estatutu barriekin batzarrean agertu gura duenak bere izena eman behar du eta gero euren artean aukeratu. Orain arte hauteskundeetan lau edo bost izen aukeratzen zuten bazkideek eta orain estatutu barriekin dena desberdina da. Nik hori

arazo bat ikusten diot, inork ez du lehendakari edo batzarrean sartu gura izango. Beraz, ez dakigu estatutu zaharrak ala barriak erabiliko ditugun.

• Zela zaude lehendakari?

• Nire aurrekoei ateratzea tokatzen zitzaien eta nekatuta zegoela eta urten egin zuen. Juntan norbait jartzea pentsatu genuen. Aukeraketa egin zen eta azkenean pertsona bi aukeratu zituzten. Azkenean urtebete egon zen bestea eta gero ni sartu nintzen.

• Zer eginbehar dauka lehendakariak?

• Gauza asko. Kanpotik datozen barriak jaso, Donostiatik datozen nobedadeak jaso eta batzarrari adierazi, batzarretara joan, bai eskualdekoetara eta baita probintzietakoetara ere.

• Eta Basotxo barruan?

• Bertako gauzak antolatzen ditugu. Bakoitzak bere lana dauka. Egiten diren gauzak baino gehiago egin daitezke. Baina gauza horiek ez dira egiten Udalaren lokala delako, gurea gela txiki hori besterik ez da. Pelukeria bat jartzea ere pentsatu dugu, baina Udalak beti eragozpenak jartzen ditu.

• Baina aktibitateak ere egingo dituzue, ezta?

• Urteerak antolatzen ditugu, urtean zehar bi zozketa berezi eta bazkide guztiei lunch bat ematen diegu urtero.

Ekintzotan parte hart-

**"Egiten diren gauzak baino gehiago egin daitezke. Pelukeria jartea ere pentsatu dugu, baina Udalak beti eragozpenak jartzen ditu"**



zeko bazkide izan behar da. Bazkide izateko 350 pezetako kuota ordaindu behar da, guk uste dugu zifra hori sinbolikoa dela. Beraz, bazkide guztiek ekintza guztietan parte hartzeko aukera izaten dute. Adibidez, 28an lunch bat daukagu eta bazkide guztiek bertan parte hartzeko aukera daukate eta gainera bazkideen artean zozketa berezi bat egiten da.

Urteeretara joateko ere bazkide izan behar da, aurreko batean Bermeon izan ginen eta autobusa beti kajatik pagatzen da eta bazkideek ordaintzeko orduan merkeago izaten dute. Beste urte batzuetan Puente la Reinara, Aranaz-era... joan gara. Irailean, urtero bezala, Arantzazura joango gara. Arantzazura bidaiak 500 pzt. izaten da, bidai eta bazkaria. Beste urteera bat urtea bukatu baino lehen izango da, eguraldiak laguntzen badu.

Gabonetan ere beste lunch bat egingo dugu.

Aurten ekintza garrantzitsu bat daukagu, Martxa erregulatua. Gatzatik hasi eta Irunerainoko jubilatuekin elkartzeko gara. Martxa hori jubilatuen egunaren hurrengo egunean izango da. Udalak urtero egun berezi bat ematen digu eta egun hau aprobetxatuz, eta diru kostua kontutan hartuta martxa erregulatua egitea pentsatu genuen.

Martxa erregulatu hori

Atxabaltako plazan hasiko da, baina aldats haundia dela eta Otalazelairaino autobusean joango gara, han urteera ofiziala izango da. Herri bakoitzetik patruila batek urtengo du, patruila lau lagunetakoa izango da. Martxak 11 kilometrotik 12 kilometrora bitarteko luzeera izango du, Otalazelain hasi, Larriotik Zugatzutik Urkuluraino, gero Arientzara eta azkenik Arkarazotik herri-ara. Ondoren bazkaria izango dugu kiroldegian.

Martxa horretan trofeo ematen zaio patruila zaharrenari eta gainera beste sari batzuk ematen dira.

• **Zenbat bazkide dauka Basotxok?**

• 500 bat bazkide izango ditu, 600era ez gara heltzen. Baina jubilatuguztiak ez dira bazkide, iaztik gaur egunera berriztu barik 200 bat geratu dira.

• **Bazkide ez denak ekintzetan parte hartu dezake?**

• Bai, bazkideei kajatik pagatzen zaie autobusa eta bazkari zati bat. Urteeretara joateko Basotxon ohar bat jarten da jendea apuntatu dadin, baina bazkideek lehentasuna daukate. Lekua egon ezker bazkide ez direnak ere joan daitezke.

• **Komarka mailan ere beste jubilatuekin elkartzeko aukera izango du?**

• Bai oso harreman ona daukagu beste herrietako jubilatuekin eta hilean behin elkartzeko gara ingu-



## "Oso harreman ona dakagu beste herrietako jubilatuekin eta hilean behin elkartzeko gara ingurukoa"

rukook, normalean Arrasaten elkartzeko gara.

Probintzietako batzarrek ere egiten ditugu eta horra lehendakaria eta bokalen bat joaten da. Han erabaki dena gure artean batzarrean eztabaidatzen dugu eta ondoren hemengo erabakia hara erosten dugu.

• **Asanbladarik egiten da Basotxon?**


• Normalean urteko asanbladan bazkide guztiak elkartzeko gara eta urtean zehar gorabeheraren bat badago denok elkartzeko gara.

Baina normalean beste gairen batzuk tratatzen ditugunean juntakoak elkartzeko gara: Lehendakaria, idazkaria eta bokalak.

• **Gustora zaude egiten zabilatzat lanarekin?**

• Gustora ez dakit, baina konformatu egiten naiz. Nik, bazkideei ekintzetan gehiago parte hartzeko eskatuko nieke bestela gure lana askotan alferrik izaten da. Jendea oso gutxi mugitzen da.

**Pedro Galdosek** 43 urte daroa Venezuelan misiolari lanetan. Aurreko zenbaki batean ere Aretxagazetan agertu zen, irailaren 26an "El León" 4.743 metroko gailurra igo zuelako. Betidanik izan da mendizale amorratua eta afizio hori hemen hartu zuen gaztetan. Afizio hori berarekin eroan zuen Venezuelara eta han talde bat sortu du. Joan zen hilean Atxabaltan egon zen Pedro eta ez dugu galdu gura izan berarekin berba egiteko aukera.



## Pedro Galdos, Venezuelako mendietan zehar

• **Ze arrazoiengatik joan zinen Venezuelara?**

• Misiolari izan gura nuen, nire anaiaren moduan Jesukristoren Ebanjelioa predikatzeko. Orain beste ideia batzuk ere badauzkagu eta ahal dugun neurrian laguntzen dugu.

• **Ze lan egiten duzu Venezuelan?**

• Nik lana eskola batean egiten dut. Guk mutikotan Atxabaltan futboleant, pelotan eta mendian asko ibiltzen ginen. Nik kirola eta mendian ibiltzea betidanik barruan izan dut.

Caracaseko eskolan 2.200 ikasle daude eta nire arazoa gazteei zer erakustea zen. Orduan sortu genuen Andinista taldea eta gainera "Centro Excursionista Loiola"ko zuzendaria naiz. Hango mutilak hasieran ez zeuden oso animatuta, baina orain jende asko dugu batxilergoan, primarian eta profesional mailan.

Hezkuntza oso ondo hartzen dute gazte hauek eta gainera mendi asko egiten ditugu 4.000 metrokoak... Eskurtsioak eta kirolak egiten ditugu gehien bat.

• **Zelako harremanak dituzu hango jendearekin?**

• Eskolan bertako jendea oso ona da eta oso harreman ona daukat. Gainera 4.000 metrora bizi den jendearekin ere harremana daukagu eta nolabait laguntzen diogu. Negurako erropak eramaten dizkiegu eta 3 hilabetero eurekin elkartzeko gara. Lan horretan eskolako gazteek ere parte hartzen dute. Irakasle batzuk ere kontratatzen ditugu bertan lan egiteko.

Orain dela 7 urte beste mendi batean "Sierra

Laguna"n konbibentzia bat izan genuen Caracaseko gazteek bertan bizi duten errealitate ekonomikoa ikus dezaten eta ezagutu dezaten. Gainera horrela bertakoek badakite ez garelako mendizale hutsak bakarrik, nolabait gure filosofia ere badaukagula ikusten dute.

• **Zela bizi dira hango pertsonak?**

• Guk mendi eta Andinista Elkarteak sortu dugu. Asko kostatu zaigu, jende askok bakarrik urteerak egitea gura zuelako.

Arazo Ekologiko ugari daude han eta horrela zenbait probintzietako pertsonak elkartzeko gara eta orain Venezuelako mendi Federazioa sortu gura dugu, baina oso gaxta da orain arte Kirol Federazioak turistatzen hartzen gaituelako. Guk askotan Brasileko banderak Venezuelako lurraldetik kentzen ditugu eta orain kontuan hartzen dabilta.

• **Mendirako afizioa han ere handia da, ezta?**

• Bai ni afizioa hemendik eroan nuen eta orain asesore lanetan nabil. Eurek antolatzen dituzte urteerak eta Venezuelatik Pamir-era eta Pumori-ra joan direnak nire ikasleak izan dira. Handik honantz oso gutxi etorri dira hemengo mendiak igoteko eta neure ikasleak izateak asko poztzen nau.

Joan zen Aretxagazetan agertu zen Joseba Larrinaga elbarrituen mailako 5.000 metroan espainiako txapelduna dela. Txapeldun izateko berak ordaindu behar izan ditu bidaia, estantzia... hori bai txapelduna!



## Joseba Larrinaga, 5.000 metroan Espainiako txapeldun

• **Noiz hasi zinen korrika egiten?**

• Orain dela 3 bat urte hasi nintzen konpetizioetarako gertatzen eta horreitan parte hartzen.

• **Zergatik hasi zinen?**

• Nahiko aspertuta nengoen beti juergak eta egiten, eta gorputza gehiago zaintzea pentsatu nuen. Hori dela eta korrika egiten hasi nintzen eta gustatu egin zitzaidanez poliki poliki horretan jarraitu nuen.

Lagun artean Behobia-ra joatea erabaki genuen, baina amaitzeko asmoarekin ez irabazteko. Gero Pedro Azkargortarekin eta Ramon Jausororekin elkar-tu nintzen eta eurekin pre-paratzen hasi.

• **Berandu hasteak izan du ondoriorik?**

• Bai, berandu hasteak beti dauka ondorioren bat. Askotan pentsatu dut 13 urterekin edo hasi izan banintz askoz hobeto ibiliko nintzela eta pena daukat tarte horretan galdu du-

dan denboragatik.

• **Zenbat orduz entrenatzen duzu?**

• Segun tenporadako zein momentutan, baina normalean batez besteko ordu t'erdi egiten dut egunean, batzutan gehiago edo gutxiago izan arren.

• **Zenbat lasterketan hartu duzu parte?**

• Denetik. Euskadi eta Gipuzkoa mailan federatutakoetan: Krossean, pistetan, popularretan ...Distantzia desberdinetakoak korritu ditut: maratoi erdikoak, 10 kmkoak, 5.000koak...

• **Korritu dituzunetik zein irabazi duzu?**

• Irabazi ez dut egin, nire maila ez delako ona. Aurten 5.000koan joan zen urtetik minutu bat gutxiago egin dut eta horrek asko poztu nau.

• **Aurten Espainiako txapelduna izan zara?**

• Bai 5.000koan elbarrituen mailan. Horrek poztu nau nire betiko entrenamenduak horretarako

izaten direlako. Bakarrik urten nuen, organizazioa ez da hain ona, ni 5.000koa egiten joan nintzen eta bakarrik urten behar banuen ere egingo nuela esan nuen, horretarako pre-paratzen naiz eta.

• **Zela joan zinen?**

• Alcorconen Madriden izan zen eta ni espainiako elbarrituen federazio barruan nagoenez hortik joan nintzen. Baina joateko nire aldetik egin behar izan dut dena eta nire dirutik ordaindu ere bai, instituzio-ek ez didate laguntzen, elbarrituen federazio territoriala ez dagoenez geuk mugitu behar dugu.

• **Zer suposatzen du txapeldun izateak?**

• Bueno poztasuna ematen du, hor nabilela jakiteak eta nirekin kontatzen dela, beste ilisiorik ez. Ikusi dudana da maila hobetu dezakedala eta horretan egin behar dudala lan.

• **Idolorik bai?**

• Bai, Martin Fiz estatu mailan.

Uztailaren 17an, zapatua, arratsaldeko 6etan Arlutzeko saskibalo finala jokatu zen. Arabatxo Wakak irabazi zuen Fatxus & the others-en aurka. Partidu polita izan zen eta partidu horrekin amaiera eman zitzaion txapelketari, hurrengo urtera arte.

Uztailaren 22an U.D.A

taldeak bere aurkezpena egin zuen, preferente eta errejional mailako taldeena. Prefentean aurten hiru barri izango ditugu: Amadeo Kilimonetik etorritakoa, Txus San Andresetik eta Arabaolaza Eskoriatzatik. Bajak seguraski Arrotxa eta Jon Agirre izango dira, eta baja segurua Leibar izango da, Arrasateko taldera doalako.

# ANEK BAI JAKIN!



EPA!  
PATXADA EDERREAN, E!



BADAKIZUE ZER ENTEZIN  
DUDAN? IRAKASKUNTZAN  
ERREFORMA EGIN BEHAR  
DUTELA GURE  
IRAKASLEEK.



ERREFORMA? LEHENENGO ERRE  
ETA GERO  
FORNA ALDATU?  
BAINA ZERTAN  
ALDATUKO DA?




ERREFORMA APURKA-ARAZI  
IRAKASKUNTZA HOBETZEN  
JOATEA DA, GUREZTAT  
ATSEGINAGOA ETA  
ERABILGARRIAGOA  
IZAN JADIN.



EGUNEROKO BIZITZAN BEHARREKO IZANGO  
DITUGUN ARLOAK IKERTU ETA IKASIZ

GURE SORMENA ETA GAITASUNAK GARATUZ

BURUAREN, NORTASUNAREN ETA GORPUTZAREN  
GARAPENA ERAGIN....



UF!  
BETIKO ANETSAK.

Bai, Bai  
BAINA ARKENAN  
AZTERKETA PILA  
BAT GAINDITU  
BEHAR, EZ?

GUZTI HDRI  
EGITEKO GURI UTZI  
BEHAR UGUKETE  
IKASGAIAK AUKERATZEN



EZ DUTE  
LISTE. BAINA  
ERREFORTZAREAN  
ASKOZ. POLITAROK  
IZANGO DA JENDU

# Suerte oporretan



J.J. Aretxaga

Suerte desberdineko jentea da atxabal-takoa. Batzuk garaipenak lortzen dituzte, beste batzuk beato egiten dituzte eta beste batzuei kotxea erretzen diete. Orain dela gutxi jakin dudanez, **Karlos Eraña Guruzeta**, jatorriz Aretxabaletarra, dohatsu izendatuko du Aita Santuak. Otalan jaioa ei da, marianista, eta herriko lehen dohatsua izango da. Beste herriar batek ez du hainbeste suerte izan. Joan den astean jakin genuen Oiartzungo Euzko Alderdi Jeltzaleko zinegotzi bati kotxea erre ziotela. Ba zinegotzi hori, **Lorea Leanizbarrutia**, atxabaltarra da.

Lehen baino suerte txartxoagoa Aretxabaletan Arrasate Press jasotzen dugunok dauka. **ARKO** elkarteak (Arrasate Press eta ATB biltzen dituen elkarteak) gutun bat bidali digu esanez Aretxabaletako eta Eskoriatzako irakurleek hemendik aurrera etxean Arrasate Press jaso nahi badute, bidalketagatik urtean 2.500 pezeta ordaindu beharko dutela. Jakina, denon artean gozatzen dena denon artean ordaindu behar. Aretxagazetan, askoz gutxiagorekin, elkarteko bazkide egiteko aukera daukazu.

Suerte desberdina etxe berean ere ematen da. Profesionaletara pasatu zenetik **Lazpiur**rek nahiko suerte txarra euki du eta atzetik

datorren bere anaiak, barrez, domekan lasterketa bat irabazi zuen jubeniletan; bere izena: **Jose Migel Elizburu**. **Asier Guenetea** ere fin dabil, lehengo egunean lasterketa inportantea irabazi zuen: Sabiñanigo klasika. Eta baita badira bere espezialidadea ez den kirolean destakatu gura dutenak ere. Herriko bertsolarietako bat, **Jon Sarasua**, mikrofonoak eta afariak alde batera utzi eta Tourmaleta igotera joan zen eta igo egin ei zuen. Nik Santo Tomasek bezala, ikusi barik ez dut sinestuko.

Pirineoko gailurretatik herriko udaletxera salto eginez, lehengo egunean susto ederra hartu zuten herriko zinegotziek. Serio-serio plenoko gai inportanteak eztabaidatzen zebiltzala, han non sartu zen plenora andra bat eskean, "Darme por lo menos pa pañales" esanez. Hura tramiterik gabeko eskaera izan zen. Hala ere, lortu zuten erabaki seriorene edo beste hartzea. Horreitako bat, artxiboa ordenetako langilearen kontratazioa, **Ana Gomez** arduratuko da lan horretaz.

Gaztetxea internazionalizetan dabil. Lehengo astean talde alemaniar bat izan zen Gaztetxean. Autobus xeble batean etorri ziren, baina bitxiene euren jazkerak izan ziren. Herriko amonaxo bat baino gehiago utzi zuten eskandalizatuta.

Bukatzeko, irailera arte agurtzen zaituztet. **Ni** oporretan herria zainketan geratzen naiz. Ondo pasau Andramaixak eta gutxi gastau.

# Iraileko ekintza egitaraua

2

## EGUENA

- **Andramaixetako zenbaki berezia**, Aretxagazetak aterako du.

4

## ZAPATUA

- **Arientzako jaiak**. (Ikus egitarau berezia).

5

## DOMEKA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Pepelinkoba**.

- Zاراia Mendi Taldearen urteera: **Zaraiari bira**.

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Lan-**

**da - Ozaeta - Araia - Aretxabaleta**. (82 Km)

- Futbol partidua, lehenengo erregionala: **U.D.A - Tolosa**.

12

## DOMEKA

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Kurtzebarri eguna**. (Ikus egitarau berezia)

6

## ASTELEHENA

- **Arantzazura peregrinazioa**.

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Urbina - Gamarra - Gopegi - Legutio - Aretxabaleta**. (72 Km)

- Preferente mailako futbol partidua: **U.D.A - C.D. Trintxerpe**.

## OHARRA

# OPORRAK!

Urte guztian lanean ibilita gero, abuztuaren lehenengo hamabostaldian oporrak hartuko ditugu. Beraz datorren hamabostaldian ez duzue Aretxagazeta zuen etxeetan jasoko. Andramaixen ostean barriro zuekin egongo gara. Ondo pasau oporrak eta bueltararte.

Andramaixen ostean, zenbaki berezi bat atarako dugu, herriko jaiei buruzkoa. Jaietako gauza bitxiak kontatuaz. Goian aitatu dugun moduan, ale berezi hau irailaren bian kaleratuko dugu. Ea jende asko elkartzen garen Andramaixetan, ondo pasatzen dugun eta gauza asko daukagun kontetako zenbaki berezi horretan.

Ondo pasau oporrak, hobeto Andramaixak eta bueltararte.

**SEAT**  
  
**GARAJE OSKAR**  
 Basabe poligonoa  
 A - 2 - 4  
 Tfnoa: 79 98 74

**ZARIA TABERNA**  
 GOIZEKO 5,30etatik  
 ZURE ZERBITZUAN  
  
 MANTEKA  
 ANAIK

**BASABE JATETXEA**  
 Menu eta afariak  
 Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
 Tfnoa: 77 07 94  
 79 91 84

**ITURGINTZA**  
  
 Tfnoak: 79 07 34  
 79 31 87

 **MAPFRE**  
 Aseguroak  
**Angel Zubillaga**  
**Aseguruen ordezkaria**  


---

 Errekabarren,3                      20550 ARETXABALETA  
 Tfnoa: 77 11 76

 **EGVZBIGRAF**  
 INPRIMATEGIA  
 Aldizkariak  
 inpresioak  
**Bulegoko materialak**  
 Basabe Poligonoa                      tfoak: 79 29 41 eta 79 18 44

**MATIKUA TABERNA**  


---

 Azatza auzoan  
 ☎ 79 16 68  
**ARETXABALETA**

**Zatuz ezagutzera**  
**ZUHAITZ**  
**jatetxea!**  
  
 BAZKARI  
 ETA AFARI  
 ONENAK!!!  
 Tfnoa: 71 46 08  
**GATZAGAN**

**I O S U**  
 URDAITEGIA  
 MITARTE,1 eta  
 GORBEA,8

**IMANOL ARRAZOLA**  
**KLINIKA DENTALA**  
 Otalora, 18 - 1. D  
 ☎ 79 93 55

**JAUREGI OKINDEGIA**  
 (Panaderia)  
 Otalora, 10  
 ☎ 79 57 47

  
**ZENBAKI**  
 Aholkularitza  
 Basabe industrialdea  
 ARETXABALETA  
 Tfnoa: 79 88 75  
 Kontabilitatea  
 Fiskalitatea  
 Lana  
 Juridikoa  
 Finantzaketa  
 Aseguruak  
 Biteri etorb, 15  
 Arrasate  
 Tfnoa: 77 12 39

**ANGELINES**  
 Autozerbitzua  
  
 Mitarte, 16  
 Tfnoa: 79 61 42

**ARETXAGAZETAKO**  
**BAZKIDE** izan gura  
 baduzu deitu:  
 ☎ 79 01 05  
 Arratsaldeko  
 3retatik 7retara

**OSKAR**  
**HARAGITEGIA**  
 Loramendi, 1  
 ☎ 79 71 69  
**ARETXABALETA**

**NERIAN**  
 Loradenda  
 Otalora, 14 behea  
 Tfnoa: 79 70 66



# ATXABALTARRON ALDIZKARIA

Aretxagazeta Elkarte, Kultur-Etxea.

ARETXABALETA

Tfnoa: 79 01 05

151 postakutxatila